


ZIKOINAREN LANA

Posted on 16/11/2015 by Naider



Espainian sortu berri diren enpresa edo startup-en inbertsioak, "arrisku-kapitala" izenez ere ezagunak, hazi dira [% 42 2014arekin alderatuta](#). Urtearen hondarrean erritmoa moteltzen ez bada, inbertitutako kapitala 500 milioi eurora igo daiteke, Espainian inoiz ikusi gabeko zifrak.

Espero bezala, inbertitutako kapitalaren ehuneko handiena oinarri teknologikoko enpresetara joan da, telekomunikazioetatik hasi eta robotikaraino. Datu positiboak izan arren, Bullnet Capital-eko bazkide

fundatzaileak, enpresa-inbertsioetara dedikatzen den enpresetako bat den Javier Uleciak, baieztatzen du Espainiak oraindik bide luzea duela egiteko, batez ere burokraziari dagokionez.

Hala ere, Uleciaren beraren esanetan, inbertitutako zifrak ez ezik, inbertitutako kapitalaren produktibitateari ere begiratu behar zaio, hau da, merkatura ateratzen direnean startupekin zer gertatzen den, atal honetan , datuek ere zantzu itxaropentsuak erakusten dituzte, urtero 4 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa behar duten enpresetako hogeitau baina gutxiago ixten baitira, datu positiboak itxuraz.

There are no comments yet.